

LEMOATX TRAIL 2017. ARAUDIA

1. Eguna, lekua eta orduak

Lemoatx Trail 2017 mendi martxa eta lasterketa azaroaren 19an ospatuko da Lemoan. Irteera eta helmuga herriko polikiroldegian izango dira.

- 08'00: martxa luzea.
- 09'00: martxa laburra.
- 10'00: lasterketa luzea.
- 11'00: lasterketa laburra

2. Ibilbideak

- Laburra: 12 kilometroko distantzia eta 750 metroko desnibel positiboa.
- Luzea: 24 kilometroko distantzia eta 1100 metroko desnibel positiboa.

3. Parte hartzea

- 18 urtetik gorako kirolari orok parte hartu ahal izango du, federatuta egonda ala ez.
- 14-18 urte bitartekoek guraso edo tutoreen baimen idatziagaz parte hartu ahal izango dute.
- 14 urtetik beherakoek, nagusi baten ardurapean egin beharko dute martxa. Lasterketan ezin izango dute parte hartu.

Antolakuntzatik aholkatu nahi da lasterketa edo martxa egin aurretik mediku-azterketa bat egitea.

4. Kategoriak eta sariak

- Lasterketa luzean, lehenengo hiru emakumeek eta gizonek garaikurra izango dute, baita lehen lemoaztar emakumea eta gizona ere.
- Lasterketa laburrean, lehenengo hiru emakumeek eta gizonek garaikurra izango dute, baita lehen lemoaztar emakumea eta gizona ere.
- Martxak ez dira konpetitiboak izango.

5. Izen emateak

- Azaroaren 12ra arte (23:59 orduak) www.herrikrosa.eus webgunean izena eman ahal izango da.
- Egunean bertan ere izena eman ahal izango da.

6. Prezioak

a- Webgunean

- Lasterketa luzea: 15 € (federatu gabeak 20€)
- Lasterketa laburra: 10 € (federatu gabeak 15€)
- Martxak: 5€ (federatu gabeak 10€)

b- Egunean bertan

- Lasterketa luzea: 20 € (federatu gabeak 25€)
- Lasterketa laburra: 15 € (federatu gabeak 20€)
- Martxak: 10€ (federatu gabeak 15€)

7. Seinaleztapena

- Ibilbide luzea banderatxo oriez markatuta egongo da.
- Ibilbide laburra banderatxo laranjez markatuta egongo da.

8. Anoa gunekak

- 5 km (Cabrero): likidoa.
- 8 km (Belatxikieta): likidoa.
- 11km (Cabrero): likidoa eta solidoa.
- 15 km (Bikandi): likidoa.
- 18 km (Lemoatxa): likidoa eta solidoa.
- 24 km (Helmuga): likidoa eta solidoa.

*Lasterketa eta martxa laburrek 5. Kilometroko anoa gunek likidoa baino ez dute eukiko.

9. Kanpoko laguntza

Lasterketan zehar korrikalariek kanpokoan laguntza eta anoa oro debekatuta eukiko dute, antolatzaileek horretarako ezarritako tokietan izan ezik.

10. Kontrolak

Lasterketa luzeak ibilbidean zehar kontrol puntu bat eukiko dute; horretatik pasatzea derrigorrezkoa da. Kontrolatik pasatzen ez den korrikalaria lasterketatik kanpo geldituko da.

11. Dortsalen banaketa

Lasterketa bakoitza hasi baino ordubete lehenago dortsala hartu ahal izango da, irteera gunean bertan jarritako mahaletan.

12. Ingurumena

- Ingurua babestea nahita nahiezkoa da eta debekatuta dago edozer gauza lurrera botatzea.
- Horretarako zaborra biltzeko tresnak jarriko dira anoa gunek amaiera guztietan. Anoa gunetan, antolatzaileek ezarritako zaborraren sailkapena errespetatzea derrigorrezkoa da.
- Arau hau hausten duena kanporatua izango da.

13. Osasun zerbitzuak

Antolatzaileek larrialditarako osasun zerbitzua jarriko dute ibilbideko lekuri estrategikoenetan. Halaber, helmugan dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko da horren beharrean aurkitzen diren kirolariarentzat.

14. Segurtasuna

Antolatzaileek, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea daukate, eta baita bertan behera uzteko ere, eguraldiaren baldintzek hala eskatzen badute edo arrazoi nagusi batengatik, lasterketa batzordearen adostasunarekin.

15. Parte-hartzaileen arteko laguntza

Parte-hartzaileek, laguntza beharrean aurkitzen diren parte-hartzaileei laguntzera behartuta daude, eta baita kontroletan gorabeheren berri ematera ere.

16. Erantzukizuna

Antolatzaileek beren gain hartuko dituzte ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak, baina korrikalariaren erruagatik edo utzikeriagatik gertatu bada istripua, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko. Parte-hartzaileak euren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izango dira.

17. Irudi eskubieak

Partaide orok, antolatzaileei eta beren babesleei, lasterketaren inguruan egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko baimena ematen diete epe mugarik gabe.

18. Izen ematearen kostuaren itzulera

Antolakuntzak ez du dirurik itzuliko izena eman eta gero lasterketan edo martxan parte hartzen ez bada.